



ibermutuamur

Gizarte Segurantzaren 274.
mutua laguntzailea



Bigarren iritzi medikoa eska dezakezu

**Kontsulta ezazu zeure medikuarekin,
diagnostikoari edo agindutako tratamenduari
buruzko zalantzarik baduzu.**

Berak esango dizu nola eskatu bigarren mediku baten iritzia.

Zer da bigarren iritzi medikoa?

Pazientearen prozesu kliniko baten diagnostikoari, pronostikoari, tratamenduari eta etorkizunerako argibideei buruz mediku aditu batek egiten duen balorazioa da, baldin eta lehen txostenean:

- Pazienteari pronostiko zehaztugabea duen edo osasunari nabarmen eragiten dion gaixotasun bat diagnostikatu badiote.
- Arriskuak dituen tratamendu bat agindu badiote.

Diagnostikoa burutu eta gero, baldin eta presazko tratamendurik behar ez badu.

Laguntza-prozesu edo prozeduretan ere egokia da bigarren iritzi medikoa eskatzea; pazienteak zalantzak argitu eta konfiantza eta segurtasuna handitu behar baditu.

Bigarren iritzi medikoa eskatzeko beste zentro batera joan behar baduzu edo aparteko gastuak ordaindu behar badituzu, lbermutuamurrek hartuko ditu bere gain.

Zer ez da bigarren iritzi medikoa?

Zerbitzu hau ez da beste prozesu batzuekin nahastu behar, adibidez, medikuaren altaren inpugnazioa egitekoarekin, prozesua lanekoa edo arrunta izan den ebaztekoekin edota kexak eta erreklamazioak jartzeko prozesuekin. Halako kasuetan, sarrerako mahaian eskuduntza duen agintaritzarengana jotzeko laguntza eska dezakezu.

Era berean, bigarren iritzi medikoa ez da pazienteak mediku espezialistara bidaltzearekin nahastu behar. Kontsulten arteko ohiko prozedura bat da hori.

Zertarako eskatu bigarren iritzi medikoa?

Bigarren iritzi medikoa biltzen duen txosten bat lortzeko, hurrengo hauetan oinarritua:

Lehen diagnostikoa edo terapia-proposamena eman zuten zentroa ez den beste zentro baimendu bateko mediku aditu baten balorazio klinikoa.

Pazientearen historia klinikoko aurrekari guztien azterketa.

Azterketa mediko espezializatu bat.

Beharrezkoak diren proba osagarri guztiak.



Nola eska dezakezu bigarren iritzi medikoa?

Bigarren iritzia eskatzeko, «Bigarren iritzi medikoa» izeneko inprimakia bete behar duzu. Eskuragarri daukazu hurrengo leku hauetan:

- Ibermutuamurren laguntza-zentro guztietan.
- Pazientearen Atarian.
- www.ibermutuamur.es web-orrian.

Bete ondoren, inprimakia aurkezteko:

- Eraman Ibermutuamurren edozer laguntza- edo administrazio-zentrotara.
- Bidali telematikoki, Pazientearen Atariaren bitartez.

Eskaerei erantzuna emateko epeak

Ibermutuamurren probintzia-zuzendariak laguntza-prozesuaren ardura duen medikuarekin batera baloratuko du eskaera eta pazienteari **eskaera aurkeztu eta ondorengo hiru egunetan** jakinaraziko dizkio **bigarren iritzia emango duen medikuaren izena, zentro baimendua eta hitzorduaren eguna eta ordua**. Hitzordua gehienez 10 eguneko epean izango da, lehentasun klinikoa duten kasuetan izan ezik: horietan epea 3 eguneko izango da.

Bigarren iritzi medikoa ematea

Ibermutuamurrek hautatzen duen osasun-zentro baimenduko mediku aditu batek emango du bigarren iritzi medikoa, idatzizko txosten baten bidez, **pazienteari azterketa egin eta 3 eguneko epean**, miaketa edo proba osagarriak behar diren kasuetan izan ezik. Kasu horietan, epea azterketa klinikoa amaitzen den egunetik hasita kontatuko da.

Bigarren iritzi medikoko txostenak pazientearen gaixotasunaren diagnostikoari, pronostikoari, tratamenduari eta etorkizunerako argibideei buruzko balorazio argudiatua bilduko du, baita pazienteak ulertzeko moduan idatzitako azken ondorio bat ere. Txostena historia klinikolari erantsiko zaio eta interesdunari emango zaio, jaso duela ziurtatuta.

Informazio gehiago behar baduzu, galdetu zure medikuari eta/edo Ibermutuamurren laguntza-zentroko Bezeroaren Arretarako Bulegoan.





ibermutuamur

Gizarte Segurantzaren 274.
mutua laguntzailea

Bigarren iritzi medikoa
eska dezakezu

 900 23 33 33
www.ibermutuamur



Jarraitu sare sozialetan:

